



OSASUN ETA KONSUMO
SAILA

DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO

Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Kontseiluaren informazio-buletina



H.e.l.: cvfcps-san@ej-qv.es - Web-orria: http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-kinve02/es/contenidos/informacion/formacion_continua/es_1265/for04_c.html

2011ko urria 1. alea

Ale honetan:

**2011ko urriaren 1etik
aurrera indarrean sartuko
diren jarduerak
kreditatzeko eskakizun
berriak:**

- Egoiliarren parte-hartzea
- Bertaratze-kontrola
- Gai kreditagarriak
- Lanbide anitzeko jarduerak eta profesional ez-sanitarioen parte-hartzea
- Ebaluazio-sistemak
- Jardueren izenak
- Jarduera mistoak
- Babes komertziala eta enpresako irakasleak
- Saio klinikoak
- Ikuskapenak
- Araubide zigortzailea

**Egoiliarren parte-hartzea
jarduera kreditatuetan**

Kontseiluaren oharra

Joan zen martxoan Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren bileran eta ebaluatzaileekin egindako lan-saioan azaldu genuen bezala, Kontseilu honen asmoa da bere jardueren berri ematea etengabeko prestakuntza sanitarioa ematen duten erakundeei eta profesional sanitarioei.

Gure iritziz, interesatuta egon litezkeen pertsona guztiei posta elektronikoz informazio-buletin bat bidaltzea izango da informazio hori helarazteko modurik egokiena.

Joan zen martxoan hartutako konpromisoa betez, gaur kaleratuko da buletin horren lehen alea. Espero dugu interesgarria irudituko zaizuela eta segida luze bateko lehena izango dela.

Eguneroko lanean sortzen diren berritasunak eta zuek egindako iradokizunak sartuko dira buletinean.

Sebas Martin

Euskal Kontseiluko Ebaluazio
Batzordeko presidentea

Marijo Bombín

Euskal Kontseiluko idazkaria

Jarduerak kreditatzeko eskakizun berriak (indarrean 2011-10-01etik aurrera)

Egoiliarren parte- hartzea

Jarduera irakaskuntza-batzordeak diseinatu eta egoiliarrentzat bada, graduondoko prestakuntza ez

kreditagarritzat jo behar da, eta automatikoki baztertu behar da prozedura honetatik.

Hala ez bada, etengabeko prestakuntza kreditagarritzat jo behar da, parte-hartzaileen gehiengoa egoiliarra izan ala ez

izan.

Kasu horretan, lanean diharduten profesionalak kredituak lortzeko eskubidea izango lukete, eta egoiliarrek ez.

Jarduerak kreditatzeko eskakizun berriak (indarrean 2011-10-01etik aurrera)

Bertaratze-kontrola



Bertaratze-kontrola

Presentziazko jardueretan, parte-hartzaileak **benetan bertaratu direla** egiaztatzen duen kontrol batek egon behar du (saio bakoitzerako sarrera eta irteera). Kreditazio globala eskatua duten jarduerak direnean, goizeko edota arratsaldeko jardunaldi bakoitzak osatuko du saioa; jarduera

bakoitzak osatuko du saioa, modalitatearen arabera egiaztapena eskatzen denean (saio klinikoak eta kongresuak). Kontrola sinadura-orriaren bidez egiten bada, hasieratik 15 minutu igarotakoan kenduko da, eta ez da berriro jarriko amaitzeko 15 minutu falta diren arte.

Gutxieneko bertaratzea
% 100ekoa izango da 4 ordu edo gutxiagoko jardueretarako, eta % 80koa, iraupen handiagokoetarako. Programa handiago baten barruan sartuta dauden eta bi ordu baino gutxiago irauten duten jardueretarako (saio klinikoak eta kongresuak), bi eskola-ordutik gorako parte-hartze globala eskatuko da.

Gai kreditagarriak



Gai kreditagarriak

Jarduera kreditagarriek honako **gai** hauetan egon behar dute:

- jardun klinikoak
- osasun publikoa (osasun- eta gaixotasun-determinatzaileak eta osasunaren sustapena)
- kudeaketa sanitarioa eta kalitatea
- ikerketa sanitarioa
- irakaskuntza
- balio profesionalak, jarrerak eta jokabide etikoak

- komunikazioa
- informazioaren maneioa (informazio-sistemak)
- talde-lana

Osasun eta Kontsumo Sailaren ildo estrategikoen artean sartutako gai berritzaileei buruzko beste jarduera batzuk ere sar daitezke, aurreko gaietan erraz sailkatu ezin direnak.

Ez dira kreditatu beharrekoak honako hauei buruzko prestakuntza-ekintzak: terapia

alternatiboak; laneko osasuna (baldin eta pazientearen zaintzara eta arretara zuzenduta ez badaude); hizkuntza zientifikoak (edozein mailatan), eta osasun-arloan eta gaixoaren edo herritarraren arreta-arloan aplikatzekoak izanda ere osasun-zientzietan espezifikokoak ez direnak edota xede-langileentzat egokiak ez direnak. Azken eduki horiek kasuz kasu aztertuko dira, eta jardueraren ikuspegiaren arabera erabakiko da.

Profesional ez-sanitarioen parte-hartzea


Profesional ez-sanitarioen parte-hartzea lanbide anitzeko jardueretan

Kreditagarriak izan daitezke profesional ez-sanitarioen parte-hartzea duten jarduerak, hainbat lanbide sanitario nahiz ez-sanitariotako baterako ekintza koordinatu ikastea eta haietan trebatzea egokia dela kontuan hartuta.

Parte-hartzea ezin da izan bertaratutako guztien %40 baino handiagoa. Bestela, zalantzan jarriko litzateke bere egokitasuna.

Jarduerak kreditatzeko eskakizun berriak (indarrean 2011-10-01etik aurrera)

Ebaluazioa



Ebaluazio-sistemak

Kreditazioa eskatzen zaien jarduera guztiek ebaluazio-sistemaren bat izan behar dute (ikasleena, irakasleena, jarduerarena). Ez da egiaztatuko item horretan 0.0 duen jarduerarik eta, horregatik, gogobetetasun-inkesta izango da eskatuko den gutxienekoa.

Ez du balio edozein **gogobetetasun-inkesta**. Argibide baliagarria lortu ahal izateko beste galdera izan behar du 0.1 baloratzeko.

Kasu bat ebazteko talde-lana, bateratzearekin eta zuzenketarekin batera, metodologia-itemean aurreikusten da. Ebaluazioa itemean ez da baloratzeko, baldin eta prestakuntza ematen duen erakundeak ez badu (prozesuko) **prestatuntza-ebaluaziotzat** jotzen eta item horretan berariaz jasoarazten. Kasu horretan 0.2ko balorazioa izango luke.

Ez du balio edozein **ezagutza-testek**: jardueraren iraupena 2 irakastordutik 5 irakastordura bitartekoa bada, 10 galdera izan behar ditu gutxienez. Iraupen handiagoa badu, 1 galdera irakastorduko eskatuko da gutxienez (adibidez: 11 galdera / 6 h, 12 galdera / 7 h...).

Galdera itxiak badira, gutxienez 4 erantzun izan behar ditu aukeran. Ez dira onartuko egia/gezurra eta haren gisako aukerak. Proba gainditutzat emateko asmatutako erantzunen ehunekoa ezin da izan % 70 baino txikiagoa, ausaz zuzentzeko sistemak badaude (puntu negatiboak), edo % 80 baino txikiagoa, sistema horiek ez badaude.

Jarduerak ematen dituen erakundeak baldintza horiek betetzen ez baditu, 0.3ko balorazioa izango luketenak, 0.2 baloratuko da ebaluazio-itema, horrela baloratzeko aukerarik badago, edo 0.1, gogobetetasun-inkesta badago.

Izenburuak

Jardueren izenburuak

Ez dira onartuko jardueren izenburu lausoegiak edo zehaztugabeak, hau da, jardueraren edukiak edo helburuak

ondorioztatzeko aukerarik ematen ez dutenak.

Kongresu, jardunaldi, bilera edo aldizkako ikastaro gisako jardueren izen espezifikoak izan behar dute (ez dute balio honako hauek: ... (e)ko hiru garren ikastaroa, ... (e)ko urteko jardunaldia, etab.).

Ez dira onartuko jardueraren modalitatea jasotzen duten izenak ere (... (e)ko ikastaroa, ... (e)ko tailerra, ...ri buruzko saioa). Jarduera ebaluatu baino lehen, jarduerak ematen dituen erakundeak aldatu egin behar du haren izena.

Jarduera mistoak



Jarduera mistoen egiaztapena

Bereizketa egingo da jarduera mistoen —hau da, zati bat presentziazkoa eta bestea ez-presentziazkoa dutenen— eta ikasleei ikastaroaren aurretik ikasmateria ematen dietenen artean.

Jarduera bat mistotzat jotzeko eta jardueraren ez-presentziazko zatia baloratzeko, honako baldintza hauek bete behar ditu:

- tutoreak egotea
- ikasketa-gidadun ikasmateria
- proposatutako helburuak lortu diren ala ez egiaztatzeko aukera ematen duen presentziazko ebaluazio-proba.

Presentziazko orduak + emandako materialaren ikastorduko zenbatuko dira.

Lan pertsonaleko orduak egindako tutoretzen eta jorratutako kasuen txostena aurkezten bada soilik hartuko dira kontuan, hau da, benetan denbora hori erabili dela egiaztatzen bada.

Jarduerak kreditatzeko eskakizun berriak (indarrean 2011-10-01etik aurrera)

Babes komertzialaren erregulazioa



Jarduera babesten duen erakunde komertzialeko irakasleak

Ez dira onartuko produktu sanitarioen edo haiekin zerikusia duten produktuen erakunde komertzialak hornitzaile dituzten egiaztapen-eskaerak.

Babes komertzialarekin finantzaturako jarduerak ematen dituen erakundeak honako baldintza hauek betetzeko konpromisoa hartu behar du:

- Txostengileen eta irakasleen artean egon litekeen interes-gatazka adierazteko prozedura ezartzea, jardueraren dokumentazioan jasota (programa, diapositibak, oharra...).

- Presentziazko jardueretan, publizitate komertzialaren arloak irakaskuntza-arlotik argi eta garbi bereizita egon behar du.
- Erakunde komertzial babeslearen logotipoa honako leku hauetan ager daiteke: jardueraren programan, ikasmaterialean euskarrietan, jardueraren ziurtagirian, irakaskuntza-barrutiko eremuen seinaleztapenetan eta ordenagailu bidezko jardueren aplikazio-banderan. Ez da inoiz azalduko ikasmaterialean, eta ezingo da tartekatuta kreditatutako edozein motatako etengabeko prestakuntza-jardueretako prestakuntza-edukien artean.
- Jarduerak ematen dituen erakundearen / Erakunde antolatzailearen izenak ikasmaterialean euskarrian azaldu behar du esplizituki.

- Sustapeneko eta irakaskuntzako materialetan ezin da aipatu jakineko produktu komertzialik.

Baldintza horiek bete direla egiaztatzeko, honako hauek aurkeztu behar dira jarduera amaitutakoan:

- Behin betiko programa
- Bertaratutakoei emandako materialaren kopia

Baldintza horiek betetzen ez badira, emandako kreditazioa berrikusi beharko da.

Gainera, irakasleak enpresa babeslekoak badira, kreditazio-prozesuari hasiera ematen zaionean edukiak aurkezteko eskatuko zaie, aldeztu aurretik egiaztatzeko jarduerak ematen dituen erakundeak edukien independentziari buruz hartutako konpromisoa errespetatzen dela.

Ikuskapenak



Ikuskapenak

Ikuskapen dokumentalak

egingo zaizkie jarduera guztiei sistematikoki.

Jarduera amaitu eta 15 eguneko epean, ziurtagiriarekin batera, honako hauek eskatuko zaizkie erakundeei: bertaratutakoen zerrenda eta erabilitako bertaratze-kontrola (sinadura-orria edo antzekoa), egindako inkestaren eta azterketaren emaitza, baldin badaude, eta kreditu-eskubidea duten parte-hartzaileei emango zaiei diploma- edo ziurtagiri-eredua.

Babes komertziala badago, bertaratutakoei emandako materiala ere aurkeztu beharko dute.

Ikuskapen horien emaitzak kontuan hartuko dira jarduera beraren edizio berriak egiaztatzeko orduan.

Halaber, jarduera masiboetarako (kongresu gisakoak), iraupen luzekoetarako edo denboran asko luzatzen direnetarako orain arte indarrean egon den jardueren behin-behineko kreditazioaren

ordez, azken dokumentazioa berrikusitakoan eskaeran jasotako irizpideak betetzen direla egiaztatzen bada, jarduerari emango zaion kreditu-kopurua **jakinaraziko** diogu entitate hornitzailei.

Beraz, ez dugu egingo behin betikoaren antzeko behin-behineko kreditazio-ziurtagiririk, akatsen bat egitea eragin baitezake edo behar ez bezala erabil baitaiteke.



Saio klinikoak

Saio klinikoak kreditatzeko prozedura

Kreditazioa eskatzen duten saio kliniko guztiek 0,2 kreditu saioko izango dituzte.

Jarduerak ematen dituzten erakundeek modu estandarizatuan lortuko dute kreditu-kopuru hori beren zentroan antolatzen dituzten saio klinikoetarako kreditazioa eskatzen dutenean (ospitale orokorra bada, ospitale-zerbitzua bada, osasun-zentroa bada, nahiz saila bada), baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- 1 h-1,5 h-ko iraupena / saio
- bertaratze-kontrola / saio
- gogobetetasun-inkesta / saio

Horretarako, kreditazio-eskaera bakarra aurkeztu beharko dute saio-ziklo osorako, honako informazio orokor hau jasoko duena:

- helburu orokorra (helburuen atala)
- aurreikusitako programazioa, irakasle-talde arduraduna, parte-hartzaileen muga eta, hala badagokio, parte-hartzaileak hautatzeko irizpideak, eta hedapen-metodoa (antolaketa/logistika atala)
- edukiak hautatzeko irizpideak eta premiak antzematea (egokitasuna)
- saioak diseinatzeko/prestatzeko arauak (metodologia)
- gogobetetasun-inkesta/iritzia (ebaluazioa)

Behin saioak amaituta, honako datu hauek jasoko dituen akta egin beharko dute saio bakoitzerako:

- saioaren izena
- data eta ordua
- txostengilearen izena
- helburu espezifiko bat, gutxienez

- justifikazioa eta egokitasuna
- saioaren garapenaren laburpena (txosten txiki bat)
- bertaratze-kontrolaren emaitzak: bertaratutakoen zerrenda eta sarrerako eta irteerako erregistroak (sinadura-orriaren edo antzekoaren kopiak)
- gogobetetasun-inkestaren emaitzak

Saio-zikloa amaitzen denean, Kontseiluak kreditazio-ziurtagiri bakarra egingo du, saio bakoitzaren izena eta lortutako kreditu-kopurua zehaztuz, 0,2 saioko. Ziurtagiriak ez du kreditu totalik izango.

Bertaratutakoei ere ziurtagiri bakarra eman beharko zaie saio guztietarako. Ziurtagirian lortutako kreditu guztiak (kredituak saioko * parte hartutako saioak) eta parte hartu duen saioen zerrenda esplizitua adieraziko dira.

Araubide zigortzailea



Ez-betetzeen tipifikazioa eta zehapenen maila

Ez-betetzeen sailkapena

- **Oso larriak:** kreditaziorako nahitaezko eskakizunei buruzkoak izateagatik jarduera bat ez kreditatzea eragin dezaketen ez-betetzeak (adibidez: bertaratze-kontrola ez egin izana)
- **Larriak:** hasieran aurkeztutako proposamenean egindako aldaketen ondorioz jardueraren bati emandako kredituak aldatzea eragin dezaketen ez-betetzeak (adibidez: aldaketak jardueraren

iraupenean, hartzaile diren lanbide sanitarioetan edo aurreikusitako gehienezko ikasle-kopuruan)

- **Arinak:** emandako egiaztapenari eragiten ez dioten baina Kontseiluaren arauak betetzen ez dituzten ez-betetzeak (adibidez: logotipoaren eta kredituen okerreko erabilera)

Zehapenen sailkapena:

- Ez-betetze **arin** batek erakundeari abisua ematea eragingo du, beste ondoriorik gabe.

▪ Ez-betetze **larri** batek (edo bi arinek) ez-betetzea egin deneko jarduerari emandako kreditazioa berrikustea eragingo du, eta erakundeak 6 hilabetetan aurkeztutako jarduera guztiak izan ondoren kreditatuko dira. Horrek esan nahi du ez dela kreditatuko erakunde horrek aurkeztutako jarduerarik azken dokumentazioa jaso baino lehen.

▪ Ez-betetze **oso larri** batek (hiru arinek edo bi larrik) ez-betetzea egin deneko jarduerari emandako kreditazioa berrikustea eragingo du, eta erakundeak urtebetean aurkeztutako jarduera guztiak izan ondoren egiaztatuko dira.



Etengabeko Formakuntzako Euskal Kontseiluko Osokoko kide berriak:

Olga Rivera Hernáez	Presidentea: Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Sailburuordetzaren bokala
Jose Asua Batarrita	Ezagutza Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaria Batzorde Iraunkorrako Presidentea
Belen Fernandez González	Euskal Kontseilu Medikuen proposatutako bokala
M ^a Jesús Zapirain Mancisidor	Euskadiko Erizainen Elkargoen proposatutako bokala
Juan del Arco Ortiz de Zárate	Euskadiko Farmazilarien Elkargoen proposatutako bokala
Agurtzane Meruelo Conde	Euskadiko Haginlarien Elkargoen proposatutako bokala
Ignacio García Álvarez	Euskadiko Albaitarien Elkargoen proposatutako bokala
Fulgencio Aledo Amorós	IVAP/Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak proposatutako bokala
Francisco Serna Rodríguez	Osakidetzak proposatutako bokala
Txus Ruiz de Ocenda	Osakidetzak proposatutako bokala
Maria Ramos Márquez	Osakidetzak proposatutako bokala
Jesús Morán Barrios	Osakidetzak proposatutako bokala
Amaia Ortubai Fuentes	Osakidetzak proposatutako bokala
Jaime Méndez Martín	UPV/Euskal Herriko Unibertsitateak proposatutako bokala
Carlos Crespo Velasco	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak proposatutako bokala
Mercedes Estébanez Carrillo	Osasun Publikoko Zuzendaritzak proposatutako bokala
Gabriel Zubillaga Garmendia	Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Sailburuordetzak proposatutako bokala
Elena Sánchez González	Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Sailburuordetzak proposatutako bokala
Juan José Rodríguez Salvador	Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Sailburuordetzak proposatutako bokala
Sebastian Martin Moreno	Ezagutza Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzak proposatutako bokala Ebaluazio Batzordeko Presidentea
M ^a José Bombín López	Idazkaria: Ezagutza Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzak proposatutako bokala